BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4944

EBAZPENA, 2015eko azaroaren 13koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, 2015eko ekitaldirako prometarako laguntzak emateko dena, garapenerako lankidetzaren kargura.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2015eko ekainaren 17ko Ebazpenaren bidez egin zen garapenerako lankidetzaren kargurako programetarako laguntzak emateko 2015eko deialdia (ekainaren 18ko EHAA, 113. zk.).

Garapenerako Lankidetzaren Funtsaren kargura ordaintzekoak diren programetarako laguntzak arautzen dituen apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren 80. artikuluan xedatutakoaren arabera, jasotako eskabide guztiak baloratuko dira, eta puntuaziorik handiena lortzen dutenek jasoko dituzte laguntzak, betiere, finantzaketa-linearen diru-hornidura agortu arte.

Laguntzen deialdia aldian-aldian egingo da, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia da eskumen hori duen agintaritza, bi dekretu hauek aplikatuta: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, Lehendakariarena; eta Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretua. Horretarako eman behar diren ebazpenak eta laguntzak kudeatzeari dagokionez, eskumena Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari dagokio.

Balorazio- eta instrukzio-prozesua amaitu ostean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Artezkaritza Kontseiluari horren berri eman eta gero, 2015eko urriaren 21ean batzartu ostean, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2015eko ekainaren 17ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak esleitzea. Laguntza horiek ebazpen honetako I. eranskinean jasotako erakundeei emango zaizkie, eranskinean aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– II. eranskinean jasota dauden eskabideak ukatzea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– III. eranskinean jasota dauden eskabideak kanpoan uztea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa jarri eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 13a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK –PGM-2015–

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izena	Herrialdea	Proposatutako diru-laguntza
PGM-2015BA/0001	Zabalketa Elkartea	Gobernanza ambiental participativa en comunidades campesinas de la cuenca del Río Grande	Bolivia	1.200.000,00 €
PGM-2015BA/0007	Médicus Mundi Gipuzkoa Elkartea	Fortaleciendo la prevención frente a las violencias contra las mujeres, como vulneración extrema	Peru	1.160.074,57 €
PGM-2015BA/0002	Mundubat Fundazioa	Mujeres empoderadas ponen en marcha alternativas de resistencia desde la economía feminista	Honduras	799.315,92 €
PGM-2015BA/0010	Hegoa Elkartea	Fortalecimiento de DDEE de las mujeres y políticas de economía solidaria en municipios de La Paz	Bolivia	1.197.332,48 €
PGM-2015BA/0012	Proclade Yanapay Fundazioa	Empoderamiento de mujeres productoras en 4 comunidades rurales ecuatorianas	Ekuador	1.200.000,00 €
PGM-2015BA/0008	Mundubat Fundazioa	Fortalecimiento de la resilencia comunitaria y cohesión social palestina en Jerusalén Este	Palestina	800.764,06 €
PGM-2015BA/0009	Mugarik Gabe, GGKEa	Mujeres salvadoreñas sujetas políticas organizadas articuladas actuando por la defensa de sus derechos	El Salvador	742.512,97 €

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK –PGM-2015–

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izena	Herrialdea	Ukatzeko arrazoia
PGM-2015BA/0006	Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna	Mujeres indígenas del Valle Cusco (Perú) agentes activas para el desarrollo sostenible	Peru	Funtsak agortzea
PGM-2015BA/0011	Alboan Fundazioa	Desarrollo rural participativo, equitativo y sostenible como aporte a la construcción de la paz	Kolonbia	Funtsak agortzea
PGM-2015BA/0003	Oxfam Intermon Fundazioa	Articulando agendas para nuestros derechos	Nikaragua	Funtsak agortzea
PGM-2015BA/0004	Setem Hego Haizea Elkartea	Desarrollo integral de las mujeres de Chimborazo	Ekuador	Funtsak agortzea

III. ERANSKINA

KANPOAN UTZITAKO ESKABIDEAK –PGM-2015–

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izena	Herrialdea	Kanpoan uzteko arrazoia
PGM-2015BA/0005	Médicus Mundi Bizkaia Elkartea	Estrategia intersectorial para el ejercicio de los DDSSRR de adolescentes en la ZS de Kisantu	Kongoko E.D.	Erakunde eskatzaileak ez ditu betetzen 57/2007 Dekretuaren 24., 25., 26. eta 28. artikuluetan aurrez ikusitako betekizunak.
PGM-2015BA/0013	Jatorkin Pro Inmigrantes	Formación, apoyo e integración de las familias inmigrantes en los centros escolares	Euskadi	Erakunde eskatzaileak ez ditu betetzen 57/2007 Dekretuaren 10. artikuluan aurrez ikusitako betekizunak diru-laguntza jaso ahal izateko.